EKAINA
2023

MARIOKERRAK
NOLA ESAN/IZAN BOLLERA EUSKARAZ

Amaia Alvarez Uria
June Fernandez Casete

Komunitate bolleroan hegemonia linguistikoa arrakalatu egin da azken urteetan, eta ontzat ematen da euskarak militantziarako duen potentzialtasun politikoa. Hori ikusita, Zinegoak elkarteak egindako proposamen bati tiraka, euskararen eta lesbianen komunitatearen ardatzak nola gurutzatzen diren aztertu dute autoreek. Lau ataletan banatu dute liburua: batetik, hiztegi edo glosategi labur bat, bolloen komunitateak bere burua euskaraz nola izendatzen duen ikusteko; bestetik, Euskal Herriko talde lesbofeministekin egindako elkarrizketetan oinarritutako gogoeta bat, bolleren komunitatearen eta euskararen arteko gurutzaketak zeintzuk eta nolakoak izan diren jakiteko; hirugarrenik, euskal kultura edo arteetan bollerak irudikatu ote diren aztertu dute eta, hala izan bada, nola; azkenik, bollerei buruz diharduten euskal idazle, musikari, irudigile, bertsolari eta artisten sorkuntza piezak bildu dituzte. Horrela, desira lesbikoaren glosategi hutsetik harago, liburu honek tresna bat izan nahi du: euskal bolleren identitate eta praktika linguistikoen erradiografia oso bat eginez, hizkuntza minorizatuaren eta sexu disidentziaren intersekzioen ertz askotarikoei argia, ahotsa eta plaza eman nahi die, ikusgarritasun lesbikoaren mesedetan.

SAIAKERA

ISBN: **978-84-19319-57-9**
ORRIALDEAK: **184**
FORMATUA: **13.5 x 21,5**
PREZIOA: **18,50€**

FEMINISMOA | GENEROA | SAIAKERA

- **Zinegoak elkarteak egindako proposamen bati tiraka, euskararen eta lesbianen komunitatearen ardatzak nola gurutzatzen diren aztertu dute autoreek.**
- **Lehenengoz, liburu batean bildu dira Euskal Herriko talde lesbofeministek euskararekin izan duten esperientzia, euskal arteetan bollerak nola irudikatu diren eta sortzaile bollerek eurek egindako irudikapenak.**
- **June Fernandez kazetaria eta Amaia Alvarez irakaslea dira liburu koral honen egileak, biak ala biak hainbat komunikabidetan kolaboratzaile eta eragile feministak.**

AMAIA ALVAREZ URIA
Euskal Filologian lizentziaduna eta Literaturan doktorea da, eta EHUko Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika saileko irakaslea da gaur egun. Argia aldizkarian literatura kritika egiten du eta Sareinak taldeko kidea da. *Sexu/Genero mintegia* izeneko irakurle talde feministaren dinamizatzailea da Hezkuntza eta Kirol Fakultatean, eta Gasteizko Emakumeen Etxeko Eleen Ganbara liburutegiko kolaboratzailea. Katalina Eleizegi eta Katalina Erausori buruzko ikerketa lanak argitaratu ditu. Feminista eta euskaltzalea da, eta ikuspegi horietatik hizkuntza, literatura, antzerkia edo hezkuntza aztertu ditu, besteak beste. *Gorputza eta generoa euskal kulturan eta literaturan* eta *Ekin eta joka. Azken ikerketak euskal teatroaz* liburu kolektiboak koordinatu ditu.

JUNE FERNANDEZ CASETE
Kazetari eta eragile feminista transmaribibolloa da. Pikara Magazine aldizkaria sortu zuen 2010ean, eta haren koordinazio taldean aritu zen hamar urtez. AMUGE euskal emakume ijitoen elkartean lan egiten du egun, eta *Pikara*, *Argia* eta *Ttap* aldizkarietan kolaboratzen du, besteak beste. Euskara eta generoa ardatz dituzten proiektuak sustatu ditu: Nola esan/izan bollera euskaraz, BiZi Bisexualitatea (Oli Artola Apeztegiarekin batera), Berbalagun feminista eta Urdin Elektrikoa; lehen biak Zinegoak eta Histeria Kolektiboak babestuak, eta azken biak, BIRA kulturguneak.
Hiru kazetaritza libururen egilea da: *10 ingobernables*, *Abrir el melón* eta *Amatxo bolloen tribua*.

9 788419 319562

txalaparta
Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus
www.txalaparta.eus